

EPAIKETA. Atzo epaitu zuten polizia bati eskopeta kentzen saiatzeaz akusatu zuten gaztea

AABek gazte batek jasan duen «epaiketa faltsua» gogor salatu dute

Bideoa erabakigarria izan da poliziaren adierazpenak gaitzesteko



JOKE LACALLE

Gloria Rekarte Batasuneko mahaikidea eta Jorge Chamorro AABetako Nafarroako arduraduna, atzo.

Kristina Berasain | IRUÑEA

Atzo egin zen Nafarroako Epaitegi Probintzian Angel Maria Millan gazte katalanaren eta bera akusatu zuen poliziaren aurkako epaiketa. Maiatzaren 23an Iruñeko Nabarrerria plazan desordena publikoak eta autoritatearen aurka egiteagatik akusatu zuen polizia nazional batek aipatu gaztea. Gaztea poliziari

istilukontrako eskopeta bat kentzen saiatzeagatik akusatu zuten ere.

Berez, ekainean zen egitekoa epaiketa, baina polizia agertu ez zenez, bertan behera gelditu zen. Orduan lekuko batek grabatu bideoa zela eta, gazteak polizia salatu egin zuen. Bideoan polizia errandakoa gezurra dela ageri da, eta atzo egindako epaiketan frogatzat erabili dute.

Orain arte epaiketan zeuden salaketak atzera bota, eta gaztea irainak egiteagatik soilik epaitu dute.

Fiskalak eta poliziaren abokatuak 4.000 eta 20.000 pezeta-ko isuna eskatu dute, hurrenez hurren. Gaztearen abokatuak, aldiz, poliziari 1.000 pezeta-ko isuna 30 egunez eta 50.000 pezeta kalte-ordainetan. Halaber, Polizi Buruzagitza Gorenaren

KOORDINAKETA. Elgarrekin eraiki prozesuan datozen hilabeteetako lan ardatzak ere zehaztu dituzte

Amnistiaren aldeko mugimendu nazional baten sortzeari buruz trenkatuko dute irailaren 22an

Eneko Bidegain | BAIONA

Koordinaketako kideek hitzordu garrantzitsua dute irailaren 22an, Uztaritzen. Amnistiaren aldeko mugimendu nazionalaren sortzea erabaki dezakete, egun hartako biltzar nagusian. Koordinaketako ordezkariak *Elgarrekin eraiki* eztabaida prozesuaren emaitzen berri eman zuten atzo. Eztabaida horren ardatzetarik bat Amnistiaren Aldeko Batzordeekin bat egitea da. Datorren biltzar nagusiak hala erabakitzen badu, ondoko aste eta hilabeteetan eztabaida desmartxa bat abiatuko dute AABekin, nola antolatatu, zer



ANGELA MEJIAS

Garbiñe Eraso, Jean-François Lefort eta Pantxo Belin.

izen hautatu eta abar erabakitzeke, Jean-François Lefort-ek azaldu zuenaren arabera.

Gisa guziz, Koordinaketak jadanik hainbat ekimen bateratu eramanez AABekin, batez ere

nazioarteari begira. Azkenik, Korsikan eta Irlandan ibili dira euskal presoaren aldeko mugimenduaren ordezkatzeko. Eta 1999tik hona batzorde nazionalen parte hartzen dute. «Indarren eta baliabideen federatzeak gaitu helburuen lortzera ekarriko», adierazi zuen Pantxo Belin Koordinaketako eledunak.

Datozen hilabetei begira bost lan ardatz martxan ezarriko dituzte: aterabide demokratikoen aldekoa, presoengaineko inguruko gaia, Euskal Herrian bizitzeko eskubidearen defentsa, presoekiko elkartzasun ekonomiko, juridiko eta politikoa, eta, bosgarrenik, «askatasun demokratikoen» aldeko lana, bertzeak bertze torturaren praktika salatuz.

DATUA

81 kasu artxibatu dira

Nafarroa. Azken sei hilabeteetan Nafarroan Poliziaren adierazpenen ondorioz akusatuta zeuden 11 pertsona absolbitu egin dituzte. Bertze 81 akusazio kasu ere artxibatu dira, azken sei hilabeteetan ebatzi diren salaketa guztiak kontuan izanda. Hala ere, salaketak duela bi urtetik honat egin dira. Josu Beaumont Nafarroako AABen arduradunaren hitzetan bertze 100 pertsona daude ebazpenaren zain, polizien adierazpenen ondorioz akusatuta.

aurkako salaketa aurkeztu du gaztearen abokatuak. Ebazpen judiziala hemendik hiru astera aterako dela iragarri du Josu Beaumont Nafarroako AABen arduradunak.

Sinesgarritasun falta

Aipatu bideoa helarazteko atzo eman prentsaurrekoan, Jorge Txokarro Amnistiaren Aldeko Batzordeen kideak kasu hau ez dela bakarrik ohartarazi zuen. «Kasuok poliziaren adierazpenen sinesgarritasun falta agerian uzten dute», erran zuen.

Gloria Rekarte Batasuneko mahaikideak hiritarrek epaileen aurrean babesik ez dutela aipatu zuen. «Orain gutxi arte oso zaila zen epaileek polizi baten adierazpenak gutxiestea». Ildo horretan, gogor kritikatu zuten sistema poliziala eta komunikabideen profesionaltasun falta. Azkenik, «indar polizialak hemendik alde egiteko» eskatu zuten AABetako kideek.

EAJ

'Hitzetatik ekintzetara' izango da aurtengo Alderdi Egunaren leloa

Joseba Arruti | BILBO

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere XXV. Alderdi Eguna ospatuko du irailaren 23an Gasteizko Salburua zelaian, *Hitzetatik Ekintzetara* lelopean. Lehenengo Alderdi Eguna 1977an egin zuten jeltzaleek, Aralarreko San Migelen (Nafarroa).

Aurreko urteetan bezala, EAJren festa eguna Salburuako zelaian ospatuko da aurten, baina azken hilabeteotan bertan urbanizazio handi bat egin ari direnez, ohiko lekutik hurbil egin behar izango dute.

Jeltzaleen urteroko ospakizun egunaren antolakuntza batzordeko zuzendari eta Euzkadi Buru Batzarreko kide Xabier Agirrek atzo nabarmendu zuenez, maiatzaren 13ko EAEko bozetan 604.000 euskal herritarrek EAJ-EA koalizioari sostengua agertu ostean «hauteskunde programa osatzen duten hitzak ekintza bihurtu behar dira», eta hori aintzat hartuta aukeratu dute aurtengo goiburua.

Hala, Xabier Agirrek nabarmendu zuenez, «bakegintza eta autogobernua aztertzeke Juan Jose Ibarretxe lehendakariak [Eusko Legebiltzarrean] deitu dituen bilkura biak izango dira Alderdi Eguneko leloa, eta EAJren jarduteko modua finkatuko dituzten lehenengo ekintzak».

Autobusak erabiltzeko deia Salburuara joateko

Alderdi Eguna prestatzeko lanak uztailan jarri ziren abian, Xabier Agirrek jakinarazi zuenez. Datorren astelehenean ehun bat afiliatu jeltzale eta langile espezializatu hasiko dira lanean Salburuako zelaian bertan jai egunerako beharrezkoa den azpiegitura guztia prestatzen.

EBBk adierazi duenez, herri guztietako Uri Buru Batzarretan autobusak jarriko dira Alderdi Egunera joateko, eta haiek baliatzeke deia egin diete jarraitzaile jeltzaleei, trafikoko arazoak saihesteko.